

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arrigorriaga

Aurkibidea

Udalerria: Arrigorriaga

Sarrera



Bilboalde eskualdean dago, Hego Uribe azpieskualdean. Kokapenari esker du garrantzia herri industrial honek; izan ere, Bizkaiko hiriburutik 9 kilometrora baino ez dago, eta Bilbo eta Gasteiz lotzen dituzten komunikazio-bide nagusiak bertatik igarotzen dira. Kokapen geografikoak eragina izan du bai biztanle-kopuruaren gorakadan, bai eta bertako euskararen egoeran ere. Eskualde honetako euskara galzorian dago, euskaldun zahar gutxi geratzen baita. Mendebaldeko euskararen barruan sartaldeko hizkeran kokatzen da arrigorriagarren hizkera. (*Argazkia: Zarategi*)

- **Biztanleak:** 12.358
- **Euskaldunak:** %31,45

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **14**
- Pasarteak: **52**
- Transkribatutakoak: **19**
- Audioak: **29**
- Bideoak: **23**

Proiektuak

- Basauriko euskararen azterketa linguistikoa
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Tomas Artaras Lekue (1918)

Arrigorriagako Briskieta auzoan jaio zen 1918. urte inguruan. Ama Uribarikoa zuen eta aita Briskietakoa. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanerako egin zitzaion elkarriketa Zolloko [Jesusa Lekandarekin](#) eta Bilboko [Maria Moja](#)rekin batera.

Marina Elexpe Orbezua (1906)

Arrigorriagako Peña auzoan jaio zen. Ama Areatzakoa zuen eta aita Zeberiokoa. Urte batekin Basauriko Uribarrira joan zen eta gero Sarratu aldera. Orain Bidebietako pisu baten bizi da. Euskaraz egitea kostatu egiten zitzaion eta ez zuen Basauri aldeko euskara egiten. [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanean parte hartu zueneko da grabazio hau.

Antoni Garmendia

Goikiri auzoan jaiotakoa da, umetatik baserriko lanetan zaildua.

Mari Garmendia Astigarraga (1926)



Goikiri auzoan sortu zen 1926. urtean. Sei neba-arrebatatik hirugarrena izan zen, hirugarren alaba. Arrigorriagako plazako eskolara gutxi (euria egiten zuenean) eta berandu joan zen, neba zaintzen eta etxeko martxa aurrera eroaten lagundu behar izaten zuen-eta. Euren etxeko txakolina eta sagardoa oso ezaguna izan zen garai haietan, hainbat ospakizunetan jendea bertan batzen baitzen. Denetariko ortuariak eta tabakoa ereiten zuten Goikirin. Gerra Zibileko bizipenak bizi-bizi azaldu dizkigu, koban ezkutatzuz etxea bonba batek zelan zulatu zien kontatzuz. Zaratamoko Gutioloko baserrira ezkondu zen; bertan ere baserriko lanei ekin zien, behi-esnearekin egindako gazta preziatua egitearekin batera.

Jose Mari Ipiña Urrutikoetxea (1924)

San Pedro auzoko Bekoetxe baserriko semea. Aita ere bertakoa zuen eta ama Zollokoa (Arrankudiaga). Sei neba-arrebatatik bosgarrena izan zen. Baserrian jaioa denez, baserriko bizimodua ezagutu zuen umetatik. Eskolara herri aldera joan zen, gaur egun anbulatorioa dagoen tokira. Bere auzo bereko Larrinaga baserrira ezkondu zen. 30 urtez aritu zen beharrea Rio tinto eta Dinamita lehergai-lantegietan. Baserriko beharrak, erlijioa, erromeria eta jaiak izan zituen berba, besteak beste.

Ildefonso Landeta Olabarri (1910)

Arrigorriagako Goribisko auzoan jaio eta bizi izan zen. Gurasoak ere hango ingurukoak ziren. Basauriko Artunduagara ezkondu zen [Pantxike Artetaga](#). [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanean parte hartu zueneko da grabazio hau.

Kontxi Moja

Burlagoiti auzoan (Bilbo) jaio eta bizitakoa. Baserriko lanetan gaztetatik trebatua, esnea banatzen ibili izan da.

Agustina Mujika Etxebarria (1926)

Arrigorriagan jaio zen. Basauriko Lapatzara ezkondu zen eta bertako baserrian bizi izan zen. [Kalixta](#) eta [Kandida Madariaga](#) gaz, [Basauriko euskararen azterketa linguistikoa](#) lanean parte hartu zueneko da grabazio hau.

Eugenio Sagastizabal Beobide (1928)



Larrasko auzoko Torrebarrondo baserrian jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Bere aita ere bertakoa zen eta ama Arteatik etorria. 7 senidetatik hirugarrena izan zen. Herriko eskolara baserriko lanek uzten zutenean joaten zen bakarrik eta dakien gehiena Basauriko akademia bateko gau-eskolan ikasi ei zuen. Baserriko beharrak alde batera utzi barik igeltsero lanetan aritu zen. Arrigorriagako antzinako kontuak, herriko aldaketak, gose garaiko bizipenak zein gazte garaiko ibilerak kontatu dizkigu, besteak beste. Gamizkoa (Gamiz-Fika) du emaztea.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. Abizen gipuzkoar asko eskualdean

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Torrebarrondo da beren etxea. Goikiri auzoa dute gorago eta Larrasko beheago. Aita eta aitaita ere etxeak ziren. Sagastizabal abizena Gipuzkoakoa izan daiteke. Basoko lanera gipuzkoar asko etortzen ei ziren antzina. Hainbat abizen gipuzkoar dago inguruan. Garmendia abizenaz.

Transkripzioa

-San Pedrora bidian Torrebarrondo baserri bakarra da. Torre etzea gurea ixin de baia gero gorao dauz, beste auzo bat, Goikiri, ta beheagoan handi beheantza Larrasko. Oin Larrasko imin deure, kallea moduen, hori euzoa nire etzeraiño.

-Ta zuen barrioa Larrasko da?

-Oin bai, oin Larrasko.

-Ta lehen zuek zelan deitzen otsazuen?

-Ba Torre.

-Barrioa Torre?

-Torre barrioa eta etzea. Etze bat baiño ez dau ta, Torretxea, Torreraño edo... Goraokoak ya Goikiri. Baie beheantza Larrasko.

-Ta hori zer, Arrigorriaga da?

-Bai, bai, Arrigorriaga.

-Ta ama ta nunguek?

-Ama Arteakoa ta aite hor bertakoa, etzekoa. Ama ta... ta aitite be bai, hor bertan jaiokoa. Uste dot e? baietz e?, aitite be hor.. horkoak dire.

-Orduan Sagastizabal bertokue.

-Bai, bai. Ez dakit nondi etorriko abizena ixingo dan, Gipuzkoa aldeti edo etorrite. Horrik, entzutea dekot hemen abizen asko dauz, Larrazabal, Solozabal, honik Garmendia be bai, Markixokoa..., Gipuzkoa aldeti etorrikoak diela hona basoetara, lehenao hemen ba baso asko egon da, basoetara baso-lanak iten, egurre txikitan edo zera. Ta horretan etorri te hemen gelditukoak gero, auren baserritxuek edo prepareute. Entzutea nik ez? Gure zaharrerri. Horrik abizenok, Larrazabal ta Solozabal ta Garmendia be bai, Garmendia be... Garmendia esaten daure soldadiskati libretako, eskapau in zauela han ta hona etorri basoetara beharren ta hemen... Garmendia Markixokoak eta honik, aite edo aitite edo... Entzutea nik aiteri e?

1.2. Baserriko lan gehientsuak bere bizkar

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/003
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:04:14. **Bukatu:** 00:07:28

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Zazpi neba-arreba izan ziren. Aita paper-fabrikan ibili zen. Baserriko lanetan ama eta neba-arrebak ibiltzen ziren, baina gehienbat bera. Abereak uztartzen ere egiten zuen berak. Behi bat oso zakarra zuten, oraindik haren adarkada marka du bekokian. Aitak Eugeniori lana eragiten zion etengabe, eta sekula ez zen egoten konforme egindakoaz.

Transkripzioa

-Ta neba-arreba asko izen ziñen?
 -Gu izin giñen zazpi neba-arraba, zazpi.
 -Ta zu zenbagarrena?
 -Ni naz hirugarrena.
 -Ta ama ta aitze baseritik bizi zien edo...
 -Ez aite fabrikara ibil zan, fabrikan, papeleran. Hor ibil zan zera...
 sutegixen, papeleran, taillerrean, herreru edo, holako zer bat.
 -Ta nor arduretuten zan ba baserriko lanana orduan?
 -Ama ta geu, zer ba? Ni... ein behar! Ganaduek buztertu te bueno... iñoz ganaduek adarka be batek iten oskun /iteoskun/. Hemen dekot erasoa eiñekoa begi ondoan adarragaz. Ta buztertu in behar derrigor! Ta gero soltakeran be dio! Hak botaten euzen /botateuzen/ adarkadak. Ta ondoko beixe be ikeratu eiten auen. Baie ein in behar, aite fabrikara joaten zan ta beharrak inde auki bihar etorten zaneke. Fabrikako adarra entzuten gindun orduen bihotza be saltuke hasten zan! Zetara etorko ete dan. Etorten bazan umoretsu ba ondo, baia bestera etorten bazan, ta ha ta hori te bestea ta in barik eta! Errue beti guk, in barik egoten zana. Inde egoten zana berageiti.
 -Ta horrek biherrak zure arrebak zein anaixek? Danok?
 -Arrebak be bai, haik be ba... baie gehixena niri toketan jatan ze anai zaharrena hil in jatan. Ta arrebak beti ba jorran, artajorran edo holango zeretan, bai, artajorran edo ba... baia ganadue edo soloa bueltau edo zera ta bestie nigana etorten zan. Beste anaixe bat dekot baia ha gazteana izin de ta ha be libretan zan. Ha be gazteana zalako... ez, nitzako etorten zien... Azpigarrixek be ebateko dauz! Ze ez dau azpigarririk! zera! Bestea! Hasten zan orduen aite zarataka, bueno! Zuhur ibili behar ta ebai in behar. Goizetan domekatan be seiretako mezan hemen egon behar e? gero meza ostean, benga! Basora! Hartu godaiñie edo berdegillea ta benga! Ha ebaten edo bestea, lotu barik! Ta iñoz ez eusten esaten ba nehiko in dozu ta oin jai. Beti ordu bietarte egoten banintzen lanian, aber hiruretarte iñazoten baosten /bosten/, ta bestea, iñoz konforme iñekoagaz.

1.3. Aita, oker jaiotako gizona

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AGO-001/006
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:13:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Baserria » Baserriko lanak » Garia

- **Laburpena:** Segalari ona izan da bera. Belarra ebakitzen laguntzen zioten auzokoek, eta eguerdian, amaitutakoan, aitak gari-jotzen ipintzen zituen denak. Aitak nekerik handieneko beharretan jartzen zuen bera eta neurririk gabe lan eginarazten zion. Oker jaiotako gizona zela dio.

Transkripzioa

-Ni bedarra ebaten ona izin nez, ona e? Oin be nik honik desbrozadorokaz baiño, ontxe be larogeta hiru urtegaz holangoak baiño gehixau ebaten dot, beitixu. Oin be bai. Han ibiltan da euzoan bat eta harek beste ontxe be garbitan dodaz. Dana ezin dot e? oin ya dana ezin dot. Ta ekarri... lagunek, bedar asko eukiten gindun ta, lagundu iten ostien ba, auzoko lagunek edo lehengusuek edo. Kaguén seis! Hairi be gero goizean ba...joe, nehikoa da ez? Bedarra ebaten ordu batatarte, goizeko seiretan hasite, ordu batatarte igual bedarra ebaten edo hamabixetarte, ya nehiko inde ta. Gero gari metak egoten zien, handi gatozeneko gari metea zabaldu ha jotén iminteko jentia. Lagunek... nik hori ingo dogu /ingu/ bixer edo zera! Nik esaten nontsen. Nik ez nauen gure hairi geihau iñazo ba! nehiko in deurela ta. Hak ez euen eiten... iñazo hairi. Ezetz ez esaterik, hairik be ein. Terkoa gizona! Baten egon ziren han... bere lagunek ixin zien haik, ta nire osaba bat, aman neba bat eta lau ta. Bagauz bazkalduten ta han ibil giñen zabaldu edo bedarro... orduen be bedar denporea zan ta. Haik esan otsien, itxizuz ganaduek ta gurdixe, ta arrastixen bedarrak hemen... sabaie esaten dotsezu edo kamaria? Zelan esaten dotsezu? Kamaran edo sabaixen ezta?

-Niretzat diferentia da sabaixe ta kamarie. Bedarra egoten dan lekue.

-Bai, bedarra, bedarra.

-Hori zer da, sabaixe?

-Ez dakit /eztait/ nik, iñoz sabaixe be entzun dot, sabaixe. Kamaria be bai, kamaria, gehixenetan kamaria esaten dotsegu. Ta bueno, han iminko jatzuz bedarrak danak arrastixen, itxizuz ganaduek ekarteko, gora iguteko ta. Lepoan ekarriazo! Kaguén San Dios! Juramentue etorko da horra ez? Lepoan, derrigor lepoan iñazo! Dios! Han izin zen gizona, oker jaiokoen bat edo. Hankak aurrerantza dala jaioko zan. Hak beharra, gehixen kostetan dana, ha iñazo behar beti, iñazo behar! Kaguén Die! Ta beti niregana, ni zaharrena. Ta beinga!

1.4. Txori-habi bila

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/008
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:15:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Txori-habiak topatzen ibili ohi ziren txikitan eguen arratsaldetan, ez zen eskolarik izaten-eta.

Transkripzioa

-Gero bitarterik egon bazan, txikiten, zerera, txori-habixek topetan ta honango tretak aukiten ginduzen. Larrazen semea etorten zan horrik txori-habixek topetan. Eguen arrastixetan eukiten gindun jai eskolatan. Horrik han egoten zien, bazkaldu ta denpora barik han! benga! Txori-habixek topetan handi. Txikiten, txikiten hori e? Larraz. Zenbet... oin juntetan naz hor laurekaz. Beti haik kontuek.

1.5. Ez ezkontzeko trikimailuak

- **Hizlaria(k):** Artaras Lekue, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** AGO-012/004
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Lagun bati gurasoek emaztegaia etxera ekarri eta hark etxetik alde egin arte logelan ezkutatuta egon zeneko pasadizoa kontatzen du Tomasek.

Transkripzioa

- Hemen [...] be, bere gaztetan... han lo itten euen, bere etxien lo itten euen. Ta berak ez dakixela emon iñuala gurasuk, zera, konbenixua in euden eta nobixie ekarri otsen etxera! Ta badator gero gurasokaz nobixa hori, ta bestiek balkoitik erreparau ta igerri, hara antza doazelako! Sartuta kuartuen, kuartuen'e krisketa, kordelagaz krisketa amarrau, krisketagaz, ta kuartuen geldu joan behar auden, ta joan ordun urtein auen.

- Baie urtein ez!

- Ya, ya. Batez, urten be, bestiok banketi preparaute, nobixi ta aitte ta ama ta.

- Ta bazkaitten be ez zan etorri?

- Etorri zin, bestie kuartun sartute, bazkaldu be ez, baie urten be ez, aita joan arte! Apai... hari... bai. Hargaitti [...] demasa euazen! Bai.

- Askot?

- Jode!

2. Baserria

2.1. Aitak saldu bere behi kutuna

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/004
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:09:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Eugeniok hezita zuen behi parek iturreko barik lan egiteko. Baina egun batez aitak saldu egin zuen horietako bat. Kontu hartu zionean, "Ugazaba neu naiz", erantzun zion aitak. Futbola ikustera joateko ere ihes egin behar izaten zuen etxeko leihotik.

Transkripzioa

-Auki nauzen behi betzuk hezite ba aurreko barik, iturreko barik, iturreko barik... baze ezpabere amak in behar iziten auen ze arrebak edo josten edo haik... holango zeretan ez auren gure in. Bueno ama. Hezite ba, nauk bakarik benga, buelta-ta. Kaugen zera! Aukiten dodaz hezite iturreko barik ibilteko ta igurdi beten non ikusten doten behixe salduten, behi bat buzterrikoa ta nauk esan ba... zer saltzean dozu ba hau behixe ba? Buzterrireko behar dogu /du/ ta... derrigor behar dogu /du/ buzterrireko ta zera ta. Hemen nau nez uzaba! Haren errosarioa hori ixiten zan gero be! Hemen nau nez uzaba! Uzaba neu nez, nauk agintan dot! Hori ez zan nok kenduko dotsenik /kendukotsenik/. Ta bere esanak in behar beti, ta bueno. Joaten nintzen kanpofubolera bai, lapurreta moduen, eskapa inde! Jatorduen hasten zan esaten, ba bueno, arrastixen hara joan behar dogu /du/, ya, ya bazkarixe amaituten hasten zanian. Kaugen la letxe! Partidue ba nik, fubola! Lagunek guztixek, euoak ta... Me kaugen la letxe! Eskapeu ein behar, kuartuen bentanati... gaubian bareoa! Ene! Han be, kanpofubolean, ia egunen baten hona bertara agertuten bajat, bildurregaz han be egoten nintzen. Zer pasazo osten!

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Frantsesa ikasi zuen liburu batetik

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/009
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:15:48. **Bukatu:** 00:17:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- **Laburpena:** Eskolara gutxi joaten zen baserriko lanak egin behar izaten zirelako, eta zatiketak egiten ikasi barik irten zen. Gero gau-eskolan asko ikasi zuen, Aljebra ere bai. Frantses ere apur bat liburu batetik; hitz egiten ez baina irakurri eta ulertu dena.

Transkripzioa

-Ta lan bai, baia eskoliek be esan dozu.

-Bai, eskolara be... eskolara ahal danian. "Dividir" ikisi barik urten neuen nik eskolati. Ze soloan in behar ixiten zan orduen, eskolia derrigorra ixiten zan itxitia. Ta eskolan pasetan jatan, leloa ez naz ixin eskolara e? Pasetan jatan, karo, orduko faltatan irikasten euzan gauza batzuk ta gero ha jakin ez, bestia atateko. Nik aurrekoa jakin ez gero bestia ezin arteztu. Ta halan. Ta atzeratu. "dividir" ikisi barik e? Ta gero gaubeko eskola batera hasi nintzen ta han ikisi neuen, buf! Gero ataten nauzen problemak, ikisi nauen

aljebraraiño e? Aljebra be jakin naun. Ta libru bet euki neuen frantsesezkoa ta frantses be asko jakin neuen! Berbaz ez, ez? Baia ostean traduzidu ta leidu ta irakurri? Frantses. Oin ya ahiztute dekot, bua! Hainbeste urte... Ahiztute dekot e? baia frantses? Oin be hitz asko badakidez frantsesez baia ya... baie lehen? Hori bai e? ez nauen jakin, oseake, konbertsaziño bat eraten... ha ezin neuen, trabestuten nintzez.

3.2. Portaera onaren agiria abadearen esku

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/015
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:25:50. **Bukatu:** 00:27:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Arrigorriagako abadeaz komentarioak. Hasieran frankistekin lerrokatu zen nonbait, baina gero ez hainbeste. Ez ei zen gizon txarra. Behin Eugeniok azterketa bat egin ahal izateko portaera agiria ("certificado de buena conducta") eskatu zion eta eman zion. Abadeek asko agintzen zuten orduan.

Transkripzioa

-Gizon txarra ez zan izin ha e? ez... Baie aldi baten eskoatara, gero parau zen e? bestera be, gero auskeraz hasi zen orduen mezea emoten ta ya... gero, zu, llobak be urten otsien beste aldekoak, Garaigorta. Ostean gixona... nigez ondo porteu zen. Baten zera, konduktia eskatu neutsen ba, esamen baterako. Ez nauen /enauen/ atara baia bardin de. Konduktia behar nauen /behanuen/, ona in osten, "intachable". Abadeak...
-Ta konduktea abadeari eskatu behar?
-Abadean konduktia eskatu ostien esamen bat iteko.
-Ze esamena?
-Esamena izin zan eskola baten sartzeako, papelerako eskolara sartzeako. Esamen bat. Ez nauen /enauen/ atara esamena. Konduktea, konduktea, bai bai, kondukta zerekoa... abadeana behar zan /behazan/. Ez dozu jakin?
-Ez.
-Bai, bai, "conducta del párroco de la iglesia".
-Orduen abadean esku egoten zan zuk hori lortutia edo ez?
-Bai, bai, lehen abadeak asko agintan euren /agintauren/.

3.3. Seietako mezara domeka goizean

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/016
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:27:18. **Bukatu:** 00:29:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Domeketan ezin zen lanik egin, baina aitak eginarazten zien, goizeko seitako mezara joan eta gero. Hamarretan izaten zen meza nagusia. Erdaraz izaten ziren mezak. Sermoia ere erdaraz, eta hori abadea Orozkokoa zela.

Transkripzioa

-Domeketan be ez aurien beharrik iten itxiten. Domeketan beharren ibiltan zanari multa ta.

-A bai?

-Bai. Gure etzean eiten zan, beitixu, seiretako mezara etorriazoten oskun aitek gero egune be osoa aprobetxetako. Jo! Han in bihar! Han in bihar!

-Seiretako mezara?

-Seiretan hasten zan mezea hemen, ze papelerakoak seiretan urteiten euren /urteteiuren/ fabrikatik, gaubez ibiltan zienak. Ta mezea entzun ta gero etzera joaten ziren haik. Ta gu orduko mezara, seiretako mezara, seiretako, gaubean igual goiti behera, jo! Hor egoten ziren bide moduekaz... gurpida bat! Horti gora, burdi-bidia baiño ez zan egoten lehen. Lehen kotxerik eta ez zan ibiltan.

-Eta zenbat meza egoten zan ba?

-Ba, hori bai, seiretako. Gero hamarretakoa beste bat, meza nausixe. Ha meza nausixe egoten zan, ha luzia zan. Ta ez dakit besterik egoten bazan. Ez zan egongo besterik. Meza nausixe ta hori, seiretako.

-Ta mezak zelakoak zien?

-Meza luziak.

-Luzeak? Eta ze hizkuntza?

-Meza... hizkuntza? Erderaz! Erderazko mezak.

-A bai?

-Bai. Auskerazko mezea oin arte ez da egon hemen, ta oin be erdizko. (3. pertsona)-Euskera hutsean dau bat.

-Auskera hutse?

(3. pertsona) -Zazpiretan zapatuen.

-Zapatuen zazpietakoa bai, auskera hutse bai? Han be ebanjelixa edo egongo da erderaz, ez?

(3. petsona) -Euskeraz da dana.

-A bai? Ba lehen ez zan egoten euskerazko mezarik... antzik bez! Dana erdere ta abadea honen auzokoa, beitixu, Orozkokoa.

-Sermoia be erderaz?

-Bai, bai, bai, bai, han ez zan egoten euskerarik nondi entzun bez.

(3. pertsona) -Euskera badauku guri esker da. [...]

-Ez, ez, ez, eleizan euskerarik? Pentseu bez!

3.4. Baserritarren aldeko abadea

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AGO-001/018
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:30:02. **Bukatu:** 00:30:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- **Laburpena:** Abade batek meza laburra ematen zuen, eta gainera baserritarren alde jarduten zuen. Gustua ematen zuen haren mezara joatea.

Transkripzioa

-Hor egoten zan abade bat, hak hogeit minutuen emoten auen mezea. Ta haren sermoia iziten zan beti baserritarran alde, orduen esnian... gustue iziten zan hango mezara joatea, esnian huelgak eta egoten zien, baserritarrak, gitxi pagetan otsiela edo zera edo bestea. Huelgak, entregau ez iten ta, esnea botaten kamiño hegalera ta. Hak hain zera esaten auen, baserritarrana, ta eleixako konturik ezebe ez auen esaten hak abadeak. Ta eleixea bete! Laburre zan moduen mezea, asko be jente gehixau joaten zan. Jentez beterik egoten zan haren mezea.

4. Euskara

4.1. "Aldeanos burros, hablan como los indios"

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AGO-001/010
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:17:26. **Bukatu:** 00:19:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Herrira jaisten ziren eskolara. "Aldeanos burros, hablan como los indios" esaten zieten kanpotik etorritako erdaldunek. Baserritarrek herrikoen kontra jokatu ohi zuten futbolearen. "Kanpoztar zapasto horrek" burla egiten zieten. Atzetik segi eta egurra ematen zieten kaletarrei. Erdaraz gaizki egiten zutelako egiten ei zieten batik bat burla.

Transkripzioa

-Ta eskolia nun eguen? Herriko eskola?
-Herriko eskolara bai, herriko eskolara.
-Ta hona bajatzen ziñen?
-Bai, bai, bai hona.
-Han barrioan edo ez?
-Han? Han etze gitxi dau. Hona etorri behar. Guardasolik eta holan bez, zaku bet igual esaten oskun aitek, zakue lepoan iminite joan eskolara! Joe! Igun bazkaltzen ta atzera eskolara.
-Ta aldea egongo zan ba hango baserriko jentea ta herriko jentea.
-Bai, bai. Aldea bai, bufi! "¡aldeanos burros!" geituten oskuen herrikoak. Horrik kanpotik etorriko elderrunok, etorten zien orduen ya, ba horrik "¡aldeanos, burros, hablan como los indios!" Partidue olgetan be futbolera igual ta, ba futbolera gustau guri be ta, "los aldeanos contra los del pueblo" olgetan gindun, aldeanuek herrikoen kontra. Bai, orduen be... baia horrik kanpoztar zapaztook! Horrik burle eiten oskuen. Gero gu bakizu, eskuek boltsan hartute, baia gero urteiten auren orduen eskuek boltsati, me kaguen! Auren atzean joan... arin eiten euren! Lantzean bateri holan lepoko bat emon ta eskapetan auren /eskapetauren/ bai. Burleka beti! Handi, han parau auren kamiño hegalian ta gu handi bidian gora danok

kuadrillan. “¡Aldeanos, burros!” Kaguen seis!

-Eta burla baserittarrak izetearren edo euskeldunek izetearren.

-Haik pentsetan euren ba gu holango... auskera iten gindun moduen, auskera ta ba beti atzeratute, berbaz be ondo jakin ez erderaz ta, bakizu, txarto beti, lotsa edo kobarde eskolan. Ba horrik, horrik auki auren arpegi bet eurek... ta gulangoari gero... buf! “¡aldeanos, burros!” jesus! “¡boronos!”

4.2. Gurasoek erdararik jakin ez, seme-alabek euskararik jakin ez

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AGO-001/011
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:19:54. **Bukatu:** 00:22:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Erdaraz ahal zen bezala, belarriz, ikasi zuen. Euskaraz ere ikasiko zuen (euskara landua) gustura, baina ez zuen aukerarik izan. Euskara asko galdu zen Arrigorriagan. Baditu lehengusuak euskararik ez dakitenak, gurasoek erdararik jakin ez arren. Esaten zuten euskarak ez zuela ezertarako balio. Berak beti maite izan du euskara. Semeak aitari barre egiten zion erdaraz gaizki egiten zuelako: "yo he visto las 'arratas' subiendo...". Amak ez zekien erdararik. "Hable en cristiano" esaten zioten leihatilan Bilbora zergak ordaintzera joaten zenean. Ama asko sufritutakoa da horregatik.

Transkripzioa

-Ta erderaz zelan?

-Ba erderaz guk ba ahal dan moduen. Oin badakigu apur bet baia lehen erderaz ez gindun iñon... ez zan radixorik be egoten ta telebisiñorik bez orduen. Orduen etzean euskeraz ta entzungoa, entzunekoa gurusuari. Ni ez naz egon euskerazko... ikisiko nauen nik euskera be bai e? ez naz ibili iñoz ikisten ta. Astirik bez.

-Hemen zure ume sasoian euskera asko entzuten zan Arrigorriagan?

-Ez, ez, galdu in zen orduen euskera asko. Francon denporia zan ta nik dekodaz han lehengusuek, lehengusu-lehengusuek, gurusuak erderarik jakin ez, erderarik jakin ez e? ta semeak auskerarik jakin ez. Esaten auren / esateuren/ erdera barik gaur ez dauela ezer, auskerea ez dala ezetako bihar, ta bueno! Nik horren ganean... niri barrez beti euskeria tiritu e? niri gustau auskeria! Ni auskeria... beti tiritu dost.

-Baia etxean, zure lehengusu horrek eta, etxean ez eben eitten?

-Erdera. Haik erdera, aiteri ta amari be erdera. Ta euskera, erdera... gurusuak auskera jakin ez, edo txarto. Fabrikan “arrastaz” ta holan... ta gero semea barre, semeak aiteri barre. Igual, nire osabea, nire aman... ta nire ama bardin. “Yo ha visto las arratas” ta semeak barre aiteri, “las arratas” esatia, arratoiak ikusi dauzela kristeleti gora igoten fabrikan. Ta nire ama be bardin, nire ama... auskera bai baia erdera... erdera ikisi barik joan zan munduti. Ta joan in behar sarriten, kontribuziñoa hamen pagetan zanean etorten zan kobretan diputaziñoti edo ba kontribuziñoa pageu bihar zanean, ta joaten zan gero egun betzuk barru edo Bilbora joan azkero ez zan errekararik egoten. Ta Bilbora ta Bilbon “¡ahora cristiano!” iten ei /i/

otsan hango takillakoak, “¡Hable cristiano!”. Jo, hak zer paseu dauen hak andriak.

4.3. Arrigorriagako idazkaria eta bi aguazilak euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AGO-001/012
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:22:41. **Bukatu**: 00:23:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Arrigorriagako idazkariak eta bi aguazilek euskaraz egiten zuten eta gauza handia zen hori baserritarrentzat.

Transkripzioa

-Euskerian ganian... Hemen aukiten auen konfiantzia, hemen egon zan sekretarixo bat, Jesus Barañano, horrek aituten auen /aituteuen/ ondo horrek euskalduneiri. Ta auki auren estimidu zera be bai, aguazil bet, Julian Irazabal, Julian Irazabal, Irazabal ta Landeta. Bi egon zien aguazillek lehen, herri guztireko ez? Ta ondo kobrau ta kontadora begitu te dana iten auren /iteuren/ eurek. Katxabea eskutan hartute, ez oingo moduen kotxe tzarrakaz hor bateti bestera ta, ez dakit ezer eiten badauren oingo aguazillek. Ta haik auskera jakin auren /jakiuren/ moduen ta euskaldune zera ondo atendidu . Igirri iten auen hak, hori Jesus Barañanok horrek, ba erdera ez dakixela ta berak auskera ebatziten otson dana. Bai, hori estimedu euki aun /eukiun/ berak be.

4.4. Abade aspergarria

- **Hizlaria(k)**: Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AGO-001/020
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:31:31. **Bukatu**: 00:33:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Egunero etortzen zitzaien don Juan eskolara. Oso aspergarria zen, mila aldiz errepikatzen zuen gauza bera. Dotrina erdaraz ikasi zuen. Euskarazko berba bat ez du entzun berandura arte elizan eta eskolan.

Transkripzioa

-Don Juan etorten jakun egunero eskolara, ordu erdi edo ez dakit zeinbet iten auen, edo ordu bete be igual e? espliketan euzen /espliketauzen/ ebanjelio guztixek hak!
-Dotriña?
-Aspergarrixe zan sermoiak botaten ha. Bua! Beti berba bategaz emoten

auzen /emoteuzen/... ez dakit zeinbet denpora. “Hay que tener fe” erderaz, “hay que tener fe, y venga, hay que tener fe” “¿Cuántas veces me vas a decir que hay que tener fe?”

-Ta orduen eskolako dotriña erderaz?

-Dotriña erderaz. Dotriña ondo jakin nauen nik gero e! dotriña ta “historia sagrada” be dana erderaz! Auskerazko berba bat ez dot soldadiskara arte entzun nik iñoz. Soldadiskan bai, hasi nintzen.

-Eta Aitze Gurie ta errosarixoak eta dana erderaz?

-Dana erderaz, dana erderaz.

-Orduen zuk badakizu euskeraz errezetan edo...

-Bai Aite Guria ta Ave Maria ta horrik bai, horrik bai.

-Ta non ikasi zendun?

-Ba gero ikisite, zahar einde ikisite.

-Ta etxean ez?

-Gero elixara joan ta ikisi.

-Ta etxean ez? Mahaia bedeinketukeran edo...

-Etzean... bai gure amak jakin zeuen ta aitek be bai euskeraz Aite Guria ta hori bai. Baie eskolan ta horti euskerazkorik pentseu bez! Existitan badau bez euskeriak! Maixue be... dana erderaz. Ta gero abadea, hau etorten zan egunero hara...ba kenduten oskun eskolian ordu erdi edo ordu bete eiten auren /iteuren/, hasten zien han arratsalde gehixenetan ta benga!

4.5. Euskaraz etxean entzuten zuen gehien

- **Hizlaria(k)**: Elexpe Orbezua, Marina
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arretxe, Jon
- **Erref**: AGO-011/004
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:08:18. **Bukatu**: 00:10:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Basaurira bizitzera joan zenean etxean euskaraz egiten zutela dio, baina kalean ez zela asko entzuten. Inguruko herrietatik lanera etorrita, kanpoko jende asko bizi omen zen Basaurin.

Transkripzioa

-Nik laurogeita lau.

- Laurogeita lau, laurogeita lau askotxo, ezta?

- Bueno... bost iteko segidan.

- Ta? ondo zaoz?

- Bai, hankatik be txarto, hankatik, bai, ezin ibili, ezin ibili asko.

- Baña kalera urteten dozu ta holan da?

- Ez gitxi, gitxi, bildurre daket.

- Bai?

- Bai, bildurre dauket urteteko kanpora.

- Ta ordun, zuk ze euskera iten dozu?

- Ez dakit.

- Ez dakizu? Ta aiten, amana edo?

- Biena.

- Biena, ezta? Ze zu ibili za , bueno aite esan doztezu dekozula Arratikue, ezta?

- Nire aita Zeberiokoa eta nire ama Billarokoa.

- Ordun?

- Bai, biek igual bai, eta herri gutikoak be, igual izen zien kasi, bai, nere gizonak be, antza, gure antzien.

- Ta gero hona etorri ziñenien zu, bueno, ba Biribiketa parte honetara, hemen zer, euskera entzuten zendun ala ez? Jentiek iten euen apur bet euskara ala?

- Aite ta ama bai baiña harek hirurogeta bost urte hil zala.

- Hemengo jentie esan gure dot, hemengo jentie.

- Gitxi.

- Bai? Bai zarratute?

- Bai gure etxean bai, gure etxean bat, bi, hiru... hiru dana euskeraz, hiru iten eudien dana euskeraz. Eta neskatoak eta guzti dakiz.

- Bai? eta harek nongoak ziren?

- Bat Lezamakoa eta besteak, ¿De dónde es Estefana? Durangokoa eta bestea Busturiakoa.

- Baie hamen jente guztie zan kanpokoa, ala, beste herrietakoa edo holan ala?

- Beti egon da hemen jente kanpo asko, Illarri fabrikatara asko.

4.6. Lagunekin hiketan

- **Hizlaria(k):** Mujika Etxebarria, Agustina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** AGO-013/007
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- **Laburpena:** Hiketan lagunekin egiten du Agustinak. Nagusiei zuka egiten die.

Transkripzioa

<p>- Ta horrerri bai, horrerri hiketan egiten otsesu? Horrerri "hi" esaten otsesu ala? - Ez, ez, ez. - Zakurreri be "zu"? - Ez, ez, ez. Gurien nebak itten euren artaleri eta lagunek be bai e. Artaleri laguneri be bai. Holan, edadekoari ez ezta, baie... ostentzien laguneri bai. Holan berba eitten otsien. Baie guk ez, andrari ez. - Zakurreri be ez? Jende askok txakurreri bakarrik egiten otse... - Ez, zakurreri ez.</p>

4.7. Guraso euskaldunak

- **Hizlaria(k):** Mujika Etxebarria, Agustina
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arretxe, Jon
- **Erref:** AGO-013/016
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:42:12. **Bukatu:** 00:43:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Agustinaren amaren senitartekoek ez zekiten gazteleraz eta aitaren aldetik aldiz, ez omen zekiten euskaraz. Hala ere, Agustinari euskara asko gustatzen omen zaio.

Transkripzioa

- Baze zeuri gustau iten jatzu euskerie, ezta?
- Bai, bai. Bai, bai, bai. Gurien amaren kuntie eta amaren parteko danak Zamudixokoak zien, han erdera, ez zebe eitten berba erdirik be, ez eurien itten erderarikan. Oingo gaztie, gazte gazte gaztie be ez. Berba erdirik be ez deurie itten. Gure aman partekoak berba erdie be ez eurien itten erderarik, eta aiten partekoak, horko Madariaga, Madariagatarrak horrek, oinddo ez dakite, hasi badiez euskera iten, baie oin artien ulertu be ez!
- Ez e?
- Ulertu be ez.
- Dana erdera.
- [...] Eta ama ta aitte euskaldunek. Ze gure aitten ba anakixen seme ta osabie ta, Felix be, eta Garmendia, bat Dominga. Ulertu be ez haren seme alabak euskerarik e! Ulertu be ez.

5. Politika

5.1. Tranbian istilua euskaraz egiteagatik

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AGO-001/013
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:23:41. **Bukatu:** 00:24:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Eskolan eta kalean ez du arazo handirik izan euskaraz egiteagatik. Tranbian bai gertatu zaio inoiz norbaitek kargu hartzea.

Transkripzioa

- Eta arazorik kalean edo eskolan, edo zigorrik edo multarik edo euskeraz eitearren?
- Auskera itearrik ez, horregeiti ez dostie gogorrik in eskolan e?
- Ta kalean?
- Kalean, kalean ba iñoz auskeraz in azkero iñoz asartau jata... lanean hasi ta trabixen edo joanda orduen bai e? auskera eiteageiti ya zertu, frente in jentia.
- A bai?
- Bai. Iñoz asertau jat hori. Tranbixen zerean ibil giñen beharren, gero albañil ibil nintzen beharren ta gero ba Bilbora edo... tranbixen gatozela baten, jolin! Auskera etor giñelako frente iten hasi jakuzen batzuk han ta bueno, pasau zen.

5.2. "Historia de España" maisuaren ikasgai kutuna

- **Hizlaria(k):** Sagastizabal Beobide, Eugenio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AGO-001/014
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:24:43. **Bukatu:** 00:25:50

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxazarra, Ainhoa
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena:** Burgosko maisua izan zuten. Militarra zuen semea. "Historia de España" irakasten zieten asko, galdutako koloniak eta horrelakoak zituen beti ahoan. "Horrek hona etorri zien hau Espaiñatutena", dio Eugeniok.

Transkripzioa

-Eta eskolara buelteta, ze euki zenduen maixue edo maistrie edo...
-Maixue euki gindun zera... Burgosekoa pentsetan dot zala. Ta hak irikasten oskun asko "Historia de España" edo. Hori bai. Auki auen seme bat militarra ta teorika guztixe... ta gero Españak euki euzen /eukiuzen/ horti koloniak eta zerak... "perdimos Cuba, perdimos esto.." horrik galdu beharran zerak aukiten auzen /aukiteuzen/ beti teorikan, beti, España... españatar zan. Horrik hona etor zien hau... Españatuten. Sekretarixoa aiuntamientukoa ta maixue ta abadea, abadea euskaldune zan baia, honen auzokoa, orozkoarra.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gau-eskolan ikasi zuen zatiketak eta buruketak egiten (AGO-001/022)

Ikasketetan ez zen txarra, baina asko egiten zuen huts eskolara baserrian lan egin behar zelako. Eta lotsatu egiten zen zerbait ez zekiela maisuari esaten. Gau-eskolan ikasi zuen zatiketak eta buruketak egiten. Buruketa batekin eskolan izandako gorabeherak.

2. Kaletarrak artajorrara tripatruke gose-denboran (AGO-001/026)

Gerra aurretxoan bost txerri hazi zituzten, baina inork ez zituen erosi gura. Gerra etorri zen eta jendea harrapatuta etorri zitzaien txerrikia erosi guran. Artajorrara ere etortzen ziren kaletarrak tripa-truke gose-denboran. Errepublikaren denboran, ostera, jatekoa ugari zegoen. Txerrikia egosi, beste gauza batzuekin nahastu eta txerriei ematen zitzaien atzera. Etxean asko ziren, eta berehala jaten zuten txerria.

3. Garia eta artoa entregatu behar udaletxean (AGO-001/027)

Baserrietan ere gosea pasatzen zen. Izan ere, garia, artoa, indabak... entregatu egin behar izaten ziren. Taloa jenez moldatu behar, eta errotak sarri itxita. Zeberio aldean eta Azpiuntzen (Zollo) ziren errotak. Lapurren moduen ibili behar gauez. Errotariak hamar kilotik bat beretzat hartzen zuen, 'menda' ('laka', Euskal Herriko beste leku batzuetan) esaten zitzaion.

4. Arbigarak medikuarentzat (AGO-001/030)

Lekunberri medikua oso mediku ona izan zen. Arbigarak eroateko eskatzen zien. Kipula gorriak ere bai. Arrantzan ere gustatzen zitzaion. Sukaldean gozatzen zuen. Eugeniori eskumuturra konpondu zion bi aldiz.

5. Lekunberri medikua, mediku eta gizon ona (AGO-001/031)

Lekunberri medikuak jendea ondo ezagutzen zuen. Oso gizon ona zen. Kapela jantzita ibiltzen zen; hori dela eta, baserritar batekin izandako solasa. Oinez ibiltzen beti, eta edozein ordutan eta egoeratan joaten zen eskatutako lekura.

6. Kipula mortzilak egiteko ona, ez sendatzeko (AGO-001/033)

Behin, bernan zaldarra infektatu zitzaion eta amak kipula jarri zion sendatzeko. Medikua rengana joan zenean, "esan amari hau mortzilak egiteko dala ona ", jaurti zion.

7. Zaldarrak soldadutzan garbitasun ezagatik (AGO-001/035)

Soldadu zegoela zaldarrak irten zitzaizkion gorputzean. Lapikoak ugarrez (herdoilez) beteta egoten ziren eta horrek eragiten zizkien, nonbait.

8. Anbotoko Atsoa Anbototik Lekandara (AGO-001/037)

Amak esaten zuen Anbotoko Atsoa Anbototik Lekandara joaten dela zazpi urtetik zazpi urtera.

9. Arrigorriagatik Basaurira (AGO-011/002)

Arrigorriagako La Peña auzoan jaio zen Marina. La Peñak Bilbo eta Arrigorriaga hartzen dituela kontatzen du eta bera Arrigorriagako aldean jaio zela dio. Ondorengo urteetan non bizi izan den ere azaltzen du.

10. Baserri inguruan euskaraz egiten zen (AGO-011/008)

Txikitan bizi izan zen baserriaren inguruan baserri gutxi zegoen. Auzokoa "karretero" lanetan ere ibili zela dauka gogoan baina, urteek aurrera egin ahala, guztiek fabrikekin amaitzen zutela kontatzen du. Marinarekin euskaraz egiten zutenen artean gutxi bizi dira egun.

11. Don Jose Garai medikuaz (AGO-012/002)

Don Jose Garai medikuaren inguruko anekdotak kontatzen ditu Tomasek. Txerria inguruko baserri guztietan egoten zela dio eta urdaia edo bestelako txerriak egunero jaten zituztela kontatzen du.

12. Idiekin ibiltzeko aitaren arropak jantzi behar (AGO-012/008)

Idiekin ibili behar baziren aitaren praka eta txapela jantzi behar izaten zituztela kontatzen du Tomasek, jotzera joaten omen ziren bestela eta.

13. Ijitoak etxera (AGO-012/009)

Etxera ijitoak joan zireneko pasadizoa kontatzen du Tomasek. Akuiluarekin mehatxu eginez bidali omen zituen aitak.

14. Behiak emakumezkoentzat, idiak gizonezkoentzat (AGO-012/010)

Baserrian idien eta behien gobernuan ibiltzen zireneko anekdotak kontatzen dituzte. Behiak emakumezkoen animaliak omen ziren eta idiak gizonezkoenak.

15. Euskaraz gutxitan (AGO-012/013)

Euskararen inguruan hitz egiten dute. Gipuzkoakoekin hitz egiteko sailtasunak izaten dituztela. Soldaduskan euskaldunak egon arren gazteleraz hitz egiten zuen Tomasek. Eskolan hasi zirenean ikasi zuten gaztelera eta lanean ere gazteleraz egiten zuten gehienetan. Euskaldun asko zeuden eremuetan egiten zuten soilik euskaraz.

16. Ura iturritik (AGO-013/002)

Ibarreko iturriaz hitz egiten dute. Fabrika egin eta desagertu aurreko kokapenaz ari dira hizketan. Etxerako eta animalientzako ura hartzen omen zuten handik.

17. Erreka bizirik zegoen garaiaz (AGO-013/003)

Errekako urak zikin joaten omen ziren paper-fabrika egin ondoren. Aurretik errekan ibiltzen ziren animaliak aipatzen ditu Agustinak; karramarroak, aingirak, etab. egoten zirela diote.

18. Arimetakoak edo Arimenak (AGO-013/005)

Arimetakoak eta Arimenak noiz erreztatzen zituzten azaltzen du Agustinak. Orduaren arabera, batera edo bestera deitzen omen ziren otoitzak. Umea zela, soroan ziharduten bitartean otoitz egiteko geratu egiten zirela ere gogoan dauka.

19. Erromeriak (AGO-013/009)

Erromeriak soinu eta panderoz alaitzen zituzten igandero baina banda ere izaten omen zen batzuetan. Auzoko mutil eta neskak batera ibiltzen zirela kontatzen du

20. San Migeleko erromeria (AGO-013/010)

Agustinaren aita gaztea zen garaian erromeria non egiten zen eta plaza non kokatzen zen azaltzen du. San Migeleko erromeria hain zen famatua non trena ere geratu egiten omen zen. Edatekoak eta jatekoak ere jartzen zituzten. San Martinetan aldiz gurasoak joaten ziren erromerira eta gazteak etxean geratu ohi zirela kontatzen du.

21. Astoa apaindu eta Arkotxako jaietara (AGO-013/011)

"San Anton txikerra" jaietara erreka pasa eta oinez joan ohi ziren. Arkotxarako San Bizente jaietara joateko aldiz, astoaren zestoak jatekoz bete eta lorez apainduta eramaten zutela dauka.

22. Inguruko auzoen izenak eta mugak (AGO-013/013)

Auzoen izenak zeintzuk diren azaltzen du Agustinak. Nondik nora diren mugak.

23. Euskararen egoera 1991n (AGO-013/015)

Agustinaren egunerokoan euskarak bizi duen egoerari buruz mintzo da. Gazteek orokorrean euskararik egiten ez dutela iruditzen zaio. Pena izugarria ematen dio hurrek "abuela" deitu eta euskara galtzeak.

24. Esnea banatzen astoz bata, behorrarekin eta gurdiaekin bestea (AGO-014/003)

Umetatik egin dute lan baserrian. Kontxik ezkondu eta gero ere jarraitu du esnea banatzen. Kontxik gida-baimena atera zuen baina Antonik ez. Behorrarekin eta gurdiaekin ibiltzen zen Antoni; Kontxi, ostera, astoz.

25. Elizakoak Arrigorriagan, udaletxea Bilbon (AGO-014/007)

Elizakoak eta hilerrikoak Arrigorriagan egiten dituzte eta paper kontuak Bilbon. Muga non dagoen azaltzen du Kontxik.

26. Hilkutxak bizkarrean edo zaldiekin gurdian (AGO-014/008)

Andabideak izaten ziren. Andariek eramaten zituzten hilkutxak bizkarrean hartuta. Bilbotik zaldiekin eta gurdiekin ere eramaten zituzten.

27. Baserriak etorkizunik ez (AGO-014/012)

Esnea oso merke saldu behar izaten dutela diote. Baserriak ez daukala etorkizunik diote.

28. Txakolina zelan egiten zuten (AGO-014/013)

Goikiri auzoan txakolina asko egiten zen. Zelan egiten zuten azaltzen dute, prozesu osoa.

29. Marrubiak saltzeko (AGO-014/014)

Antonik etxean sagardoa egiten zuen. Marrubi arlo handiak izaten zituzten. Saldu ere egiten zituzten.

30. Maiatzaren lehenengoa (AGO-014/015)

Goikiri auzoko emakume bati buruz berba egiten du Antonik. Maiatzaren 1a zelan ospatzen zuten kontatzen du.

31. Erromerietara eta barraketara (AGO-014/017)

Erromerietara joaten ziren. Ingurukoak aipatzen dituzte. Urkiolaraino eta Laudioraino ere joaten ziren. Pasarte bat kontatzen du Antonik, Bilbora barraketara joan zirenekoa.

32. Argindarra berandu, ura depositotik (AGO-014/025)

Kandilarekin, farolarekin eta karburoarekin lortzen zuten argia. Ura deposito batetik ekartzen zuten etxera. Oraitsu arte errekarra joaten ziren arropak garbitzera. Oraingo lanek urik gabe laga dute auzoa.

33. Oilo albardatuaren errezeta (AGO-014/027)

Oiloa albardatua zelan prestatzen den azaltzen dute.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com